

EZ DUT EZER ULERTZEN

Osteguna da, klaseko azken ordua. Ikasketa Burua gure klasera dator, bihartik aurrera eta, gutxienez bi astetan klaserik ez dela egongo esateko. Klase guztia algaraka, batera hitz egiten, oihuka, isiltasun eza. Denok histeriko gaude. Irakaslea gu lasaitzen saiatzen da, baina ez du lortzen, ez da posible. Motxilan liburu guztiak sartu behar ditugu, baina niri ez zaizkit sartzen. Ai ene! bi liburu eta hiru koaderno eskuetan eraman beharko ditut. Etxera heltzeko ordua iritsi zaigu, ezin naiz ia-ia ezta ibili, motxilak pisu handia du eta lurrera erortzeko zorian nago.

Etxera heldu, eta ez naiz ezertarako ere atera arratsalde osoan. Nire berrogeialdia hasi egin da jadanik. Oraindik ez dakit, baina uste dudana baino askoz luzeago eta gogorragoa izango da.

Ostirala. Ez naiz institutora joan behar, baina egia esan, joatea nahiago nuke. Goizeko hamaiketan esnatu naiz, gosalduta eta lan egiten hasi. "Oporretan ez zaude"-dio amak Bukatutakoan jan eta lagunekin Whatsapp edo Instagram bidez hitz egin dut. Bakarrik daramagu egun bat etxean eta aspertzen hasia naiz, ez dakit zer gehiago egin. Arraro sentitzen naiz... Oporrak? ez.... Gaixorik? ezta.... Eguraldi txarra? ez, eguzki ederra dago.... Zer dela eta orduan etxean? Ez dut ezer ulertzen!

Aste bakarra igaro da, lagunak faltan somatzen ditut, barreak, besarkadak, gure kontuak...ea laster ikusi ahal ditudan!

Bazkalorduan, amak berrogeialdiak beste 2 aste iraungo duela esan dit... Lehen aspertuta banengoen, are gehiago aspertuko naiz. Aspertu hitz egokia da nola sentitzen naizen azaltzeko? Edo agian goibeldu, larritu, ikaratu esan beharko nuke? Ez dakit...egia esan, ez dakit nola sentitzen naizen. Berriz ere, ez dut ezer ulertzen.

Egunak pasatzen doaz eta etxean jarraitzen dugu, konfinatuta, isolatuta, sentimenduak bizi-bizian. Egun guztia lan egiten, lagunak faltan somatzen, txalo ordua iristen denean malkoz betetzen zaizkit begiak... Familiakoen besarkadak, ferekak, mimoak, baina ni berdin sentitzen naiz. Egia esan, ezin dut gehiago, ea laster bukatzen den.

Apirila oso azkar pasatu da, uste baino azkarrago, dida batean Maiatzak 1era iritsi gara. Bihar kalera irteteko baimena daukagu, poztu beharko nintzateke baina beldur sentazioa sentitzen dut buruan, bihotzean, gorputz osoan zehar. Ez dut kalera irten nahi, ez daukat indarririk, izututa nago... Zergatik ez nago pozik? Azkenean, 49 egun etxean igaro ondoren, kalera irtetera behartzen naute. Eguzkiaren argia eta haizea sentitzen dut nire gorputzean. Irteteak pena merezi du, hori sinetsi nahi dut, baina oraindik ere izututa nago. Zergatik? Zerk ematen dit beldurra? Ez dut azalpenik aurkitzen.... ondoeza berriro. Berriz ere, ez dut ezer ulertzen Lagunak berriz ikusi ditut, 2 metroko distantziara bada ere. Azkenean, konturatu naiz askoz hobeto dela aurpegiz-aurpegi hitz egitea, eta ez Whatsapp edo bideo-dei bitartez.

Guzti hau bukatutakoan, nire gozamen txikiak gozatzeko aukera berriro izan nahiko nuke: paseo bat, itsasoko olatuak nire oinetan, haizea aurpegian, lagunekin egotea, entrenatzea...

Ez daukat kexatzeko arrazoirik, badakit. Ez dut familiako inor edo lagunik galdu, ez zait ezer falta, baina bihotzean daukadan beldur hau desagertzea nahiko nuke, eta Martxoaren 12an nintzena berriro izan.

Egilea: OREKA AR